



HKEE-REN PRENTSA OHARRA, PARTAIDETZA PUBLIKOA %50-ETIK GORAKOA DUTEN SOZIEATEEN LEGEZKOTASUN TXOSTENARI BURUZKOA –2000.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak partaidetza publikoa %50etik gorakoa duten Sozietateen legezkotasunari buruzko txostena mamitu du, 2000ko urtealdikoa. Txostena aho batez oniritzi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Txostenak ondasun erosketa eta zerbitzuen eta langileen kontratazioaren alorrean legezkotasuna bete izana aztertu du.

~~Txosten honen xede diren Sozietateak dira euskal administrazio publikoen multzoaren artean (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Toki Entitateak) zuzenean edo zeharka, kapitalaren %50 baino kapital handiagoa dutenak, administrazio batek ere bakarka partaidetza hau gaintitzen ez duela. 2000ko urtean 41 sozietate zeuden, betekizun hau betetzen zutenak.~~

HKEEren txostenak sozietate hauek duten izaera publikoa azpimarratu du; baita, horien gaineko informazio eza ere, bere kontu orokorretan barne hartuko dituen administrazioerik ez izateak eraginda. Izaera publikoa duten aldetik eta fondo publikoen Botere Esleipen hartzaile diren aldetik, sozietate hauek HKEEren fiskalizazioaren esparru subjektiboan sartzen dira.

Halaber, txostenak garbi uzten du sozietate hauei gainerako sozietateei ezartzen zaien araudi bera zaiela ezargarria; honenbestez, obren exekuzioan eta ondasun erosketa eta zerbitzuetan publizitate eta lehia printzipioak gorde behar dituzte, eta merezimendu eta gaitasun printzipioak langileria kontratatzerakoan, eragiketen izaera edo zenbatekoa zehaztuko duten legezko agindu zehatzak aplikatzeaz gain.

Erakunde fiskalizatzaileak egindako lanetik ondorioztatu du derrigorrez hala egin behar zuten hamahirutatik, hamabitan ondasun erosketa eta zerbitzuen kontratuak eskaintzen eskaera mugatu bidez esleitu direla, publizitate printzipioa urratuz eta lehiarena mugatuz; beste sozietatean, bi printzipioak urratu dituzte.

Urtealdian zehar langileria kontratatu duten sozietateei dagokienez, hamazortzi sozietateetatik hamahiruk ezargarria zaien arautegia urratu dute.